



Goienkale kalea
(somera) 14
BILBO

Zer da telekomunikazioa? Zertarako burujabetza? Nola lortu dezakegu?

Etengabeko abiaduran dabilen mundu honetan zail egiten zaigu halako galderei buruz hausnartzeko astia hartzea. Aldiz, gure egunerokotasunean gehienok dugu harreman oso estua komunikaziorako erabiltzen ditugun gailuekin, sistemekin, plataformekin,...Edozein dela ere egiten dugun erabilera oharkabez ondorioak ditu gure bizitzan, ekonomian, gizartean eta ingurugiroan.

Izarkomen jakitun gara gure jarduna ere ez dela neutrala, beraz, dagokigun ardura hartu eta gure bazkide, kolaboratzaile zein herritarrentzat informazio zein sentzibilizaziorako doako tresna sortzea erabaki genuen 2024. urtean.

Hainbat helbururekin jaio zen Izarkom eskola:

- Telekomunikazioa eta teknologia ezberdinek izan dezaketen eragina aztertu eta lengoia teknikotik kaleko hizkuntzara jeistea.
- Kontsumo arduratsua, eraldaketa soziala eta burujabetzaren inguruan eztabaida piztu eta teknokultura zabaltzea.
- Izarkom eta bere ekosisteman dauden pertsona zein eragile ezberdinak ezagutzera ematea.

Hainbat aditu eta eragileekin elkarlanean sortutako formakuntzarako eta esku hartze sozialerako baliabide honi jarraipena emateko asmoz 25/26 ikasturterako eskolari bultzada eta formatu berria eman diogu. HamaikaTBrekin lankidetzan podcast saio bat sortzea erabaki dugu, baina publiko presentziala izango duena.

Irailetik Ekainera bitartean 10 saio hibrido egingo ditugu Bilboko nodoan. Hilabeteko azken asteazkenetan ospatu eta aste baten buruan emitituko dira telebistan.



hamaika
Lankidetzan sortutako
podcast solasaldi irekiak





Goienkale kalea
(somera) 14
BILBO

Irailak 24

ADIMEN ARTIFIZIALAREN ARGI ILUNAK

Usue Mori Carrascal

Urriak 29

FAKE NEWS AROA?!

Julen Orbegoza Terradillos

Azaroak 26

NORTASUN DIGITALA ETA ZIBERSEGURTASUNA

Lorea Arakistain Aizpiri

Abenduak 17

PANTAIEN INPAKTUA HAUR ETA GAZTEENGAN

Mirene Beriain Rodríguez

Urtarrilak 28

TELEKOMUNIKAZIO BURUJA... ZER?

Beñat Azkargorta Mintegi

Otsailak 25

NOLA BABESTU GURE BIZITZA DIGITALA?

Unai Aberasturi Gorroño

Martxoak 25

SOFTWARE ASKEA HERRI LIBRE BATEAN

Iker Garaialde Etxaburu

Apirilak 29

SARE SOZIALAK ETA EUSKAL FEDIBERTSOA

Zihara Enbeita Gardoki

Maiatzak 27

FAXISMOAREN AURREAN BORROKA DIGITALA

Maialen Arteaga eta Maider Galardi

Ekainak 24

KRIPTOMODA ETA DIRU DIGITALA

Alex Lopez Morga



hamaika

Lankidetzan sortutako
podcast solasaldi irekiak

